

# uztarrria

||Azpeitiko herri aldizkaria ||2011ko uztaila ||130. zenbakia || ||



## BASERRITIK ITSASORA

Kalitatea nahi beste, eta indarra are gehiago,  
Zumaia arraunaren historian sartu zuten  
'Turbo Deun' ontziko mutilek 20



# Miele etxetresna elektriko ekologikoak Bere ezaugarria kalitatea da

Kontsumo baxuko baloreak izateagatik ezaugarritzen dira Miele garbigailuak. W1945 Ecoconfort garbigailu berria Eco feedback programarekin hornituta dago. Eta horri esker, garbiketaren hasieran kontsumoaren aurreikuspen bat egiten du eta amaieran, izandako kontsumo zehatza azaltzen du, litro eta KWHtan. Honela, erabiltzaileak ur eta elektrizitate kontsumoa ezagutu eta kontrolatu dezake.

Mielek kalitatea berezkoa duelako. Eta naturala, ekologikoa izatea delako.

Aukeratu Miele. Aukeratu Kalitatea

Miele banatzaile ofiziala:

**MILAR  
LARRAMENDI**

Milar Larramendi  
Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia  
Tel. 943 85 18 97



**30 € -tik gorako  
erosketa  
egiteagatik,  
Milar kamiseta  
teknikoa opari**



**Miele**



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behe,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 130.a (2011ko uztaila)  
**Urtea.** XII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730 792 /  
 oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerok  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** EREGI  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



azpeitia udala

**Uztarriak Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



## |||2011KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?||||||



### iritzia

**Inkesta.** Herriko dendetan beherapenak aprobetxatzen? **13**

### mamia

**Iosu Zabala.** MU-ko errektorea, heziketaz eta unibertsitateaz **04**

**Klik!** Azpeitiko biribilguneak argazkitan **16**

**Erniarraizkoak lehian.** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan aurrera **24**

### jakiteko


**Bestaldetik.** Eliza kontuez harago, Kepa Susperregirekin **34**  
**Azpeitiarrak basque countryn.** Begoña Illaramendi, Iruñean **37**

**Ba aL dakizu uztarriak aurten ere tonboLa jarriko dueLa ErdikaLean santio eta san inazio festetan?** **Uztarria**

egin zaitez bazkide **Uztarrian**

943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide **30** euro dira urtean.  
**gara** dagoeneko Uztarrian; 106.400 euroko aurrekontua eskerrik asko denei.  
 du Uztarriak 2011. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia eta Enkarna Arregi.

# IOSU ZABALA

Mondragon Unibertsitateko errektorea

## “Ingeniariak faltako ditugu Laster Euskadin”

Gizartearen era lan munduaren premiak kontuan hartuko dituen heziketa ezinbestekoa da beretzat eta hori egia bihurtzen ahalegintzen da. ✍️ Mailo Oiarzabal

**I**kerlan teknologia zentroan eta Fagor-en urte luzez aritu ondoren, 2006tik Mondragon Unibertsitateko (MU) errektorea da Urrestillan jaiotako azkoitiarra. Aurten berriro hautatu dute eta beste lau urtez behintzat “oso gustura ari” den karguan jarraituko du, “orain dela lau urte bezain besteko ilusioarekin”.

### Zer moduzkoa da errektore esperientzia?

Oso ona eta interesgarria. Aukera paregabea da errektore izatea, horrelako postu asko ez dago. Neuri behintzat burutik ere ez zitzaidan pasatzen egunen baten unibertsitateko errektore izatea. Proposatu zidatenean, ezusteko handia izan zen. Profil jakineko pertsona baten bila zebiltzan,

alde batetik ikerketan ibilitakoa, bestetik enpresa mundutik ere pasatutakoa, eta doktoretza bat zuena. Nik betetzen nuen profila eta proposamena egin zidaten.

### Bazenekien non sartzen zinen? Ba al zenuen harremanik unibertsitatearekin?

Ikerlanen 21 urte egon nintzen eta, urte horietan, bai unibertsitatearekin eta bai zehazki Mondragon Unibertsitatearekin, harreman handia izan nuen. Hemengo jendea oso ondo ezagutzen nuen, eta mundu honetan gutxi gorabehera zer egiten zen ere bai, baina neu ez nintzen egon inoiz unibertsitatean. Akaberan, unibertsitatea enpresa bat da, gurea behintzat hala da. Eta ez dut esaten esaldi borobil loratu

### DATUAK

||| **Jai**. 1952ko abenduaren 30ean. ||| **Herria**. Urrestilla.

||| **Bizi tokia**. Arrasate.

||| **Lanbidea**. Ingeniaria, Mondragon Unibertsitateko errektorea da.

bat egiteko; guk zentzu horretan ulertzen dugu, eta horrela kudeatzen dugu. Alde horretatik, bai Ikerlanen, eta bereziki Fagorren egin nituen zazpi urteek, eskarmentu ona ematen dute. Pentsatu leike unibertsitatea gauza ezberdina dela, baina hemen ere, batik bat errektoretza mailan, baina beste maila askotan ere bai, garbi dago pertsonekin harremanak eta pertsona horiekin kudeaketa elkartu bat egitea direla gakoak. Nik esango nuke, neuretzat, askotaz gogorragoa zela

Fagorren gerente izatea, errektore izatea baino. Pasatzen dena da, errektore izateak proiektio publiko handiagoa duela.

### Zeintzuk dira errektore baten eginkizun nagusiak? Zureak, kasu honetan?

Bat, unibertsitatearen irudia izatea; unibertsitateak jendearen eta gizartearen aurrean daukan aurreneko argazkia hori da. Era-kundeekiko harremanak oso garrantzitsuak dira. Unibertsitateak, erakunde bezala, errekonozimendu handia dauka; enpresa bat da, baina bestaldetik gizarte mailako erakunde garrantzitsua ere bai.

### Gizarte mailan beste batzuk baino baloratuagoa, agian?

Irudi eta errekonozimendu nabariak dauzka. Orduan, oso kontuz



ibili behar da. Nik beti pentsatu behar dut nire atzean erakunde bat dagoela, erakunde horretan pertsona asko, eta pentsamolde ezberdin askotako jendea. Erakunde baten ordezkari bezala aktuatu behar dut, eta ez pertsona zehatz bat bezala. Aurreneko eginkizuna, beraz, instituzionala da. Erakunde horren bozeramaile eta irudi nagusi naizen aldetik, bestetik, askotan tokatzen zait unibertsitatearen erronkak, joe-rak eta ardurak gizar-teari azaltzea; baita gure onurak, berezitasunak eta zereginak ere. Eta, era berean, barrura begira, gauza horiek denak egia bihurtzea; ez du balio, gauza bat esan eta barrura begira bestea egiteak. Errektore bati tokatzen zaiona da fakultate guztien eta horietan dagoen jende guztiaren norabidea eta zeregina ahalik eta modurik koherentenean eraman araztea. Horrek suposatzen du, lehen aipatu dudan kudeaketa.

**Unibertsitatearen eta gizar-tearen eta enpresaren arteko loturak sakondu beharraz asko hitz egiten da. Eta egin? Zer egiten da, eta zer egin beharko litzateke?**

Arlo horretan ezin da unibertsitateaz orokorrean hitz egin. Oso jarrera desberdinak daude unibertsitate batetik bestera. Mondragon Unibertsitateari dagokionez, gizar-tearekiko eta enpresarekiko joera sorreratik dakarkigu; azken batean, hortik sortu ginen. Ziklo guztia egin dugu, eta ziklo horretan beti egon gara enpresari lotu-

ta, enpresek gu lagunduta, eta guk enpresei lagunduz, haien garapenean. Gure kasuan behintzat, oso garbi daukagu, gure zereginak benetan zentzua duela, nolabait gizar-te hau bultzatzeko balio badu. Baten batek esango du, 'ederra bota dik honek'. Baina ziurtatu egiten dut, hori horrelaxe dela, erabat txertatuta daukagu. Eta oso harro gaude horretaz, benetan pentsatzen dugulako gure gizar-teak aurrera egin behar badu, eta ongizatea mantendu nahi badugu, lan handia daukagula. Lanpostuak izateko enpresak behar ditugu, enpresek lehiakorrek behar dute izan, merkatuak eskatzen dituen produktu berriak eskainiko dituztenak. Eta guzti hori, gainera, gero eta nazio-artekotuagoa, globalizatuagoa eta zailagoa den mundu batean.

**Nola egiten zaio aurre horri, unibertsitatetik?**

Erronka horri hiru erara erantzuten diogula esango nuke. Bat, jende gaztea heztea da, agian jendeak gehien identifikatzen duena: gazte jende hori ondo prestatzea, gero munduan aurkituko dutenari erantzuteko prestatzea, gure enpresek behar duten moduko prestakuntza dutela ateratzea. Gure zeregina oso inportante da alde horretatik.

**Premien arabera heztea?**

Eta premiak erabat ari dira aldatzen. Orain dela hamar urteko premiek ez dute zerikusirik, zati handi batean, gaur egungoekin, eta hemendik hamar urtekoekin ere ez. Egokitzapen ahalmen eta malgutasun handia behar dira. Bestaldetik, unibertsitate bezala, gure zeregina ez da jende gaztearekin bukatzen, sekula ez dugu horrela ulertu. Aldakorra den gizar-te honetan, denok daukagu edo izango dugu birziklatzeko premia. Nahi ala ez, denok ohitu behar dugu, pixkana-pixkana, bizitzan zehar eskolara eta unibertsitateara bueltatzen. Hor ere, jendeak zer behar duen identifikatzea, ondo prestatzea eta ondo ematea, zeregin garrantzitsua da.

“Ondo hezitako jendea beharko dugu, munduan ibiliko dena”

“Ez zaiqu batere gustatzen ‘unibertsitate pribatua’ esatea”



Hirugarren erantzuna ikerketa litzateke. Helburua enpresak dituen beharrei ondo erantzuteko aurrea hartuta ibiltzea da. Gure zeregina hori da, eta oso-oso barneratuta daukagu, unibertsitate bezala. Egia da ez dela unibertsitateen artean orokortuta dagoen kasu bat, eta hori nabarmen ikusten da.

### **Lan munduari eta kooperatiba munduarekin estuki lotuta dagoen unibertsitatea da zuena, baina pribatua izateak ez al dio, era berean, elitismo kutsu bat ematen?**

Hori ondo zehaztu beharko genuke. Unibertsitate pribatuak garestiagoak dira unibertsitate publikoetan baino; eta egia da, gainera, unibertsitate pribatu batzuk erabat bideratuta daudela etekin ekonomikoa lortzera. Gure kasua ez da inolaz hori. Gainera, ez zaigu batere gustatzen 'unibertsitate pribatua' esatea. Egia da ez garela publikoak, baina ahalegintzen gara matrikulak ahal den merkeena jartzen; baina, noski, unibertsitate publikoek bezalako finantziatorik ez daukagunez... Gu unibertsitate ez-publikoa gara, baina erabat zerbitzu publiko bideratutakoa. Askok gustatuko litzazuke matrikulak publikoetan bezala izatea, noski, baina baten batek jarri beharko luke aldea. Baina guk, elitismotik, batere ez. Gehiago esango dut: ez da inor gelditzen MUn sartu gabe, diru kontuagatik. Inor ez.

### **Gaur egungo gazteak akademikoki inoizko prestatuenak izan daitezke baina, era berean, lan munduan sartzeko inoiz baino zailtasun gehiago dauzkate.**

Bai eta ez, esango nuke. Esan duzuna egia da. Bai enpresak eta bai gazteak, inoiz baino hobeto

“Ez da inor gelditzen MUn sartu gabe, diru kontuagatik”

## Urrestillako oroitzapenak

“Kasualitatez” Donostiako ospitalean jaio eta nortasun agiriak donostiar bezala aurkezten duen arren, losu Zabala Urrestillan bizi izan zen ia 9 urte zituen arte. Attitite Ventura –amaren aita– hil zenean joan zen familia Azkoitira, losuren aitaren jaioterriera. 25 urte zituenetik, berriz, Arrasaten bizi da.

Urrestillan igarotako haurtzaroaz galdetuta, “oroitzapen asko eta onak” dituela aitortzen eta kontatzen du. “Nahiko garbi gordetzen ditut Urrestillako bizimodua eta hango jendea. Eskolako bizipenetatik hasita, kanpotik etortzen ziren maisu haiekin; garai hartako apaizak, Don Angel eta Don Clemente, eta

prestatuta daude. Egia da, eta kalean orain badaude mugimendu batzuk zentzu horretan [15-M mugimenduari erreferentzia eginenez], hainbat jende, eta horien barruan gazte asko, lanik gabe daude. Nik beste gauza bat esango nuke. Krisitik pixkanaka irteten ari garen honetan, industria mailan behintzat, ingenieritza arloan, hemendik pixkatera, ingeniariak faltako ditugu Euskadin. Orain dela hiru urte, krisia hasi baino lehenago, jendea ia oso-oso kezkatuta zegoen horrekin, jenderik ez zegoelako. Hori orain pixka bat baretu egin da, eman behar ez dagoela arazorik, baina gu ez gara ari hipotesi horrekin lanean. Gu ari gara jendea ikasketak teknikoetara, ingenieritzetara, animatzen, erabat. Aberastasuna hortik dator

### **Unibertsitate-gizarte-enpresa harremanean benetako beharrak ez direlako ondo sustatu al da hori?**

Gazte jendeak ere, igoal, momentu onetan zail fama duten karrerari ‘toma’ egin die; jaitziera demografikoaz gain, beste jaitziera bat eman da ikasketak tek-

Don Clemente behintzat gurekin futboleak, sotana jasota, jo eta ke; Txikuri zena pilotan; otarre egitea...”. Otargilea zen, izan ere, Zabalaren attitite Ventura, ‘xestaina”, eta gogoan dauka hark otarretarako egurra nola lortu eta lantzen zuen: “Txaratik egurra ekarri, han tratua egin, Aratzerreka bidean zeuden potzuetara beratzeko eraman, gero etxe azpian zegoen labean egosi...”.

Errota baserriko “putzua”, Urrestillan Aldapa bezala ezaguna eta gaur egun desagertua, da Zabalaren txikitako beste erreferentzietako bat. Koruan ere ibili zen, bere adineko beste hainbat mutiko bezala, Donato Aristik hezten zituen tripletan.

nikoetan: ingenieritzetan, fisikan, matematiketan... Ingeniariak eta tituludunak behar dira, eta benetan gutxi edukiko ditugu. Nik animatu behar dut jendea karrera teknikoak eta ingeniariak ikastera. Enpresa munduko jendeak, hor beharko du; beste karrera batzuk igoal ez hainbeste, baina hori bai. Konbentziturako kanpotik ekarri beharko dugula jendea.. Eta agian behar gutxiagorekin, baina antzera era berean, enpresa munduko finantza eta ekintzailetasunaren bueltan dabilen jendea. Ekintzailetasunak ez dauka parorik, hori norberaren inizatiba da. Orain dela bi urte martxan jarri genuen titulazioa da, eta hemendik bi urtera, bukatzen dutenean, espero dut langabezia ez direla egongo. Magisteritzan ere eskaera beldurgarria dago. Belaunaldi aldaketak handi bat ematen ari da irakaskuntzan eta, hori dela eta ez dela, jende asko ari da apuntatzen. Niri horrek kezka bat ere sortzen dit, alde batetik, espero dudalako izena ematen ari diren guztiek gainera bokazioa ere izango dutela, zeren horiek hezi

behar dituzte etorkizuneko gure gazteak.

### **Azpeitian, hauteskunde kanpainen, alderdiek aipatu dute herriko eta bailarako hezkuntza sarea indartu eta eraldatu beharra. Nondik uste duzu jo beharko luketela hemengo erakundeek?**

Konpetentzia egundokoa daukagu. Globalizazioaren mugimendu hau, *iceberg*-aren puntatxoak besterik ez da. Oso konziente izan behar dugu, hemen ezin dugula pentsatu eroso eta ahaleginik egin gabe bizitzea. Heziketa arloan zerbait egitekotan, lehenik eta behin gizartea, jende guztia, gurasoak eta neska-mutilak ere bai, kontzientziatu egin behar dugu heziketak duen benetako garrantzia; hori eguneroko kezka bilakatu behar dugu. Ondo hezitzea garrantzitsua da, ez da nahikoa eskolara joan eta maila gaintzea. Behar dena goi-mailako heziketa da, gutxienez lanbide heziketa bat. Beharko duguna ondo hezitako jendea da, munduan zehar ibiltzea tokatuko zaiona. Eta ez noizean behin bidaia bat egitera joango dena bakarrik, baik eta aldi luzeak han eta hemen pasatzea tokatuko zaiona, gure enpresei lagunduz. Hemen bizi ahal izateko, gure enpresak beste toki batzuetan ere egon beharko dira, han kudeatu, lan egin... Heziketa ez da gauza abstraktu bat, entelekia bat. Heziketa izan behar da gure erakundeak, enpresak, banketxeak eta etxeak ondo funtzionatzeko tresna bat. Gero eta berritzaileago, gero eta ekintzaileago izateko. Nik uste dut hausnarketa orokorra hori dela. Gero, beste eztabaida bat izan daiteke zer eskola egon behar diren Azpeitian, Azkoitian, Elgoibarren edo Arrasaten. Alde horretatik gaizki ohitu gara. Ez dugu nahikoa oinarritzako hezkuntzako ikastetxe bat etxe atarian izatearekin; lanbide heziketakoa, institutua eta unibertsitatea ere herrian nahi ditugu. Eta hori ezin da. Arrazionalizazioa behar da. ✘

# Bastillako espiritua

**A** tzean utzi berri dugun udaberria ez da nolana hikoia izan. Aldaketak, ezustekoak eta ideien susperraldia bizi izan ditugu, besteak beste. Ez da erraza ulertzea batzuetan aldaketa eta bapateko mugimenduen agerpena zergatik ematen den momentu jakin batzuetan.

Ziur nago bere patroia eguna ospatzera zioazen madrildar asko ez zirela jakitun izango 2011ko San Isidro eguna ez zela arrunta izango Espainiako hiriburuan. Egun horretan, hainbat eta hainbat gertakizunen lekuko izan den plaza jendez betetzen hasi zen, krisi ekonomikoaren eta politikoen berari aurre egiteko hartutako neurriei buruz kexatzeko. Bapatean, Puerta del Sol herri mugimendu baten toki bilakatu zen, gaur egun 15-M bezala ezagutzen dugunaren sorleku.

Historiako beste gertakizun eta une historikorekin gertatu den bezala egun eta leku horiek ikur bat bilakatu dira baina mugimendu horren atzetik dagoen espiritua eta ideiak dira garrantzitsuena. Zein da eskakizunen muina? Zer helburu bilatzen dira? Gizartea eta eredu politikoa eta ekonomikoa aldatzea da benetako azken helburua?

1789ko udaberria ere konbultsioak joa izan zen Europako beste hiriburu batean. Krisi ekonomikoak eta politikoak bultzatuta, Frantziako errege Luis XVIak Estatu orokorrak deitu zituen, herrialdeak zituen arazoak aztertzeko. Azken helburua krisitik ateratzeko neurriak adostea zen, eta Erdi Arotik abiatuta, gizartea osatzen zuten estamentuen artean. Estamentu horietako batek, burgesiak eta nekazariak osatutakoak, aldaketa gosea zuen eta garai hartako *status quo*-a mehatxatzen zuen. Monarkiak, nobleziak eta goi kleroiak mendeak zeramatzen zuten pribilegio guztiez bereganatuta gizartea gidatzen. Hasiara batean burgesia izan zen klubetan (gaur egun go alderdi politikoen jatorria) antolatuta aldaketa politikoa martxan jarri zuena konstituzio berri bat idazteko helburua ezarri.



|||||||markel mendizabal|||||||

|||Batzuetan ez da erraza ulertzea aldaketa eta bapateko mugimenduen agerpena zergatik ematen den

Ingalaterran mende bat lehenago gertatu zen bezala aldaketa burgesiaren esku gertatu zela zirudien, baina bapatean Parisko herriak, ogiaren prezioaren igoerak sorturiko goseteak bultzatuta, Bastillako gartzela erasotu zuen uztailearen 14an. Egun batetik bestera, iraultza politikoa eta herrikoa bat bihurtu ziren. Gauza bera gertatuko ote da Madrillgo kasuan? Udaberri bero bat uda oraindik beroago batek ordezkaturiko ote du?

## Tsunami

Japoniar jatorriko hitz hau erabili dute adituek Bildu koalizioak Euskal Herrian orokorrean eta Gipuzkoan bereziki izandako emaitzak deskribatzeko. Aldaketa gosea nabari gelditu da herritarren artean. Udaberria beroa izan da gurean ere, Auzitegi Konstituzionalaren erabakiaren ingurukoak azken golpea eman zioten udaberriko giro politikoiari.

Udaberri bero eta itxaropentsu honek udan bere jarraipena izango duela espero behar da.

Baina Frantziako iraultzan gertatu bezala, aro berri baten hasieran gaude? Ea uda honek gertuko etorkizunaren bilakaerari buruzko aztarnaren bat ematen digun. Hasi dadila uda eta jarraitu dezala aldaketak.✳



# Taka-taka, tipi-tapa

**A**itortzen dut, tartera alferkeriak jotzen nauela. Kostatu egiten zait sofa-tik altxatzea. Kostatu egiten zait zapatilak janztea. Eta, nola ez, kostatu egiten zait etxetik irten eta herriaren beste alderaino oinez joatea.

Izaten ditut dudak etxetik irten edo ez. Etxetik irten, eta autoa hartu edo ez. Ez dut gezurrik esango. Alferkeriak irabazten dit, tarteka.

Baina tarteka bakarrik izaten dut zabarkeria. Normalean, euririk ez bada behintzat, gustura joaten naiz oinez alde batetik bestera. Asko gustatzen zait pasieran noan bitartean herriko bizitzaren gauza txikiei so egitea. Jende desberdina ikustea. Lagun zaharrak ikustea. Belaunaldi berriak ezagutzea. Eguneroko bizitzan sortzen diren bitxikeriei arreta jartzea.

Etxetik irteteak ematen dit nagikeria, baina behin irtenda, gustura ibiltzen naiz alde batera eta bestera bi hanken gainean tipi-tapa, taka-taka.

Aurrekoan, batetik besterako bidean, Erdikaleko hainbat dendetan kartel batzuk ikusi nituen. Zera zioten: 'Kaleak irekita behar ditugu'. Harritu egin nintzen, eta zer pentsatua eman zidan.

Segituan akordatu nintzen herrian lana egiten nuenean nola ibiltzen nintzen, Erdikalean. Oinez joaten nintzen lanera, egunero. Nagikeriarik gabe. Alde batean autoa, eta bestean zaborra zirela (goizean, oraindik bildu gabe), ezinean. Karreretako kosketara igo eta jaitsi, autoaren ondotik pasatzen nintzen kalkuluak ateratzen, eta zaborraren kamioia zainduz. Ez zen erraza izaten bulegora iristea!

## Txanponaren bi aldeak

Alde batetik, ulertzen ditut dendariak. Denera autoan joateko ohitura nagusitu den honetan, negozioak iraungo badu beharrezkoa izango da negozioaren ateraino autoa iristea,



ihintza agirretxe

Helburua ona bada,  
ni prest nago  
nire bizi ohiturak  
aldatzeko

ez dut dudarik. Eta krisi garai honetan, dena beharko dute aurrera egiteko. Baina, beste aldetik, herriari bizia ematea bada helburu, ez dut ulertzen autoak hor zer leku duen. Herriari bizia ematea, edo kalean bizia sortzea, bizia kalera ematea, garai zaharretan bezala.

Erdigunetik atera beharko genituzke autoak. Eta herritarrez bete. Nik herritarrentzako Alde Zaharra nahi dut. Izan dadila herriko plaza herritarrek elkartzeko gunea. Izan daitezela kaleak herritarrenak, eta ez autoenak. Ederra da kalean gora eta behera beldurrik gabe ibiltzea. Irten dezagun etxetik alferkeriaz, baina dudarik gabe. Edo beste aukerarik gabe. Lortu dezagun erdigunea bilgune izatea.

Horretarako, ordea, gure mugikortasun ohiturak errotik aldatu beharko ditugu. Nireak bai, behintzat. Baina, nik uste, hori dela etorkizuna, edo hori beharko luke.

Bidea ez da erraza izango, ohiturak aldatzea eta erosotasuna galtzea asko kostatzen baitzaigu. Niri bai behintzat, baina helburua ona bada, ni prest nago nire bizi ohiturak aldatzeko.✱





# urrategideko



**círculo**  
muebles

altzariak & sukaldeak

**“ETXEBELTZ –  
IZARRA”  
ESKAINTZA ETA  
PROMOZIO  
BEREZIAK.**

**“24 hilebete  
interesik gabe”**



- Sukaldeak
- Sofak
- Haurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak



## 1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14  
urrategideko@urrategi.eu  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Euskaraz, modu jatorrean, gainera!

Aurreko hilean 'Behera' jarri genion saltoki honi, baina uztarriaren aholkuei kasu egin eta euskara jatorrean kartel ederra zintzilikatu du dendari honek. 📌 **Uztarria**

**BEHERA.** Zilarra euskararentzat; urrea gaztelaniarentzat.

Gaztelaniaz idatzitako iragarkiak itsatsi dituzte herriko hainbat trafiko seinaleetan. Zergatik ez gauza bera egin, baina euskaraz? 📌 **Uztarria\***



Fernando Morillo.

## ESANA DAGO

III "Sareak botatzea da idazle izatea, airean dabiltzan ideiak harrapatzeko; amets ehiztari izatea"

III "Barruko umeak idazten du, eta akademiko serioak zuzendu"

FERNANDO MORILLO idazlea

III "Tabernan jaioa naiz, eta ikasketak ordaintzeko modua gurasoen lanari esker izan nuen, tabernara joaten zirenei esker, alegia. Horregatik zorretan sentitzen naiz"

JULIAN BEREZIARTUA medikua

**katu hau ikusi al duzu?**

bintx izeneko katua galdu da Pablo VI kalean. Ikusten baduzu, deitu 943 812726 / 680145248 zenbakira.

SARIA ESKAINTZEN DA



MADINA

ERRADIOLOGIA

- Hortz erradiologia digitala
- Ortopantomografiak eta teleradiografiak
- Inplantologiarako 3D hortz eskanerrak (100% manilar peluhuta bahoitzeko)
- Ekografia, mamografia, hezur densiometria (Osteoporosi azterhetetak)

Toribio Etxeberria 4-1<sup>a</sup> Ezh. 20600 · EIBAR tel. 943 202857



## Zutanoa

**N**erabeek zuka egiten dizutenean zureak egin du. Gazteek euren taldetik kanpo utzi zaituztenaren seinale argia da hori. Alper-alperrik esango duzu, gaztetasuna ez duela urte kopuruak adierazten, edo gazte sentitu egin behar dela edo antzeko kontu hutsalak. Naturaren legeak naturaren lege dira. Nerabeen zutanoak zure egoera betirako aldatu du.

Ni neu oraindik ere gazte sentitzen naiz. Are gehiago oraindik ere ume. Neure burua oraindik ere "Betarramistetan" kaniketan jolasten ikusten dut. Baina neska-mutikoez as-

paldidanik zuka egiten didate eta horrek zer esan nahi duen jakin badakit.

Esate baterako, Saninaziyuetan nire rola erabat aldatu da. Non ote da hiruzpalau eguneko etengabeko festa gose ase-ezin hura? Goizean goiz oheratu, eguerdian burukominez esnatu eta arratsaldean berriro ere onenen pare festarako prest.

Orain, barrakak, Txarlin kafetoxa, eta goazen etxera. Eta hurrengo egunean burukomin galanta. Eta egin ezaren damua.

Zutanoak, besteak beste, Patxi kendu dit, Patxi Fideo, alegia. Hika ala zuka, inoiz gazte




### txetxu urbieta

izateari utzi ez dion gizaki apurretakoa. Seguru saninaziyuetan famili bereko hiru belaunaldi ezberdinei Gin-Kasa behar den bezala zerbitzatu diela. Umetan, Atxuian, nire jolaslagun zen alkate jaunarentzat proposamen xumea: gure Patxi herri-ondare izenda dezala, edo bestela enbaxadore, edo gutxienez (honek argia ikusten duenerako berandu izango bada ere) festa haserako suzia berak bota dezala.

Patxiren begiek ikusi eta belarriek entzun duten guztia jakiterik balego... Animo Patxi, hasi ordurako bukatu dituk eta. Ondo pasa.✳

### IKUSTEKO!



### ▲BESTE BI ZAPLASTEKO BATEAN?

Anonimotasunetik, lasai asko, giza-talde oso bati bizikletak egozte leporatzen zien kartela agertu zen duela bi hilabete, Jose Artetxe kaleko karrera baten kanpoan. Errumaniarren kontrako pintadak berriz agertu dira. Ordukoan, euskaraz jakin ez nonbait, eta gaztelania erabili zuten. Oraingoan, bi hizkuntzen arteko nahasketa aldrebesa egin dute. 📧📞 Ainitze Agirrezabala✳



## ███EKAINEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...████████████████████



### *Biziberritzen*

**BERRERABILTZEAREN KULTURA.** Herritarrek erabilitako gauzak erosi eta saldu ahal izan dituzte bigarren eskuko azokan, berrerabiltzearen kulturaz jabetzeko. Bigarren eskuko azoka, bigarren bizia emateko gauzei; hirugarrena, laugarrena... Erabili-berrerabili ala erosi-erabili-bota? Zuri ez al zaizu inporta? Behin erabilitako gauzen hilobia da erraustegia.



████████████████████maite garmendia████████████████████



### *Bildu, biltzen, bilduko*

**UDAL BERRIAREN OSAKETA.** Maiatzak 22, Bildu. Ekainak 11, Bildu. Sentsibiltate desberdin guztiak, bildu. Poz guztiak, bildu. Sufirimendu guztiak, bildu. Azpeitiar guztion indarguneak, bildu. Askatasun txiki denak, bildu.



### *700 urte baino gehiago*

**ZAZPI MENDE... ETA GEHIAGO.** Azpeitiko herriak 700 urte baino gehiago ditu, baina Gaztela eta Leongo Errege Fernando IV.ak 1310ean eman zion hiribildu-gutuna. "700 urte, zazpi liburu". Azpeitiko hainbat arlo –herriko ondare artistikoa, genero harremanak...– landuz,

zazpi liburuko bilduma argitaratu dute. Azpeitiarrak nolakoak ginen eta nolakoak garen azaltzen, mendez mende, urtez urte, orriz orri, letraz letra. Historiaren hariak, mataza, anabasa ulertzeko zantzuak, bidean aurrera egiteko pausoak, argiak, lausoak.✘

## INKESTA

Herriko dendetan beherapenak aprobeztatzen?

 Ainitze Agirrezabala

**ASIER GURRUTXAGA**

hezitzailea



“Berez ere ez dut erosketak gehiegirik egiten, ez herrian eta ez

kanpoan, baina egia da beherapenetan beti ere errazago erortzen dela zerbait. Herrian lagun dendariak ditut eta haien dendetan erosten dut normalean”.

**IGOR AGIRREZABALA**

kirolaria



“Ez naiz ni erosketak egiteko Donostira joan zalea. Herrian

erosten dut. Beharra badut, erosteko ez naiz beherapenen zain egoten, baina egia da beherapenak amu ona direla”.

**ANE OTAEGI**

ikaslea



“Donostiara edo merkataritzaguneetara joateko ohitura dut.

Beharpenetan errazago gastatzen dugu, eta askotan zerbait erosteko beherapenak heldu zain itxoiten dut”.

**GURUTZE IRASTORZA**

promotore bateko langilea



“Zizurkildarra naiz, eta aukera handiegirik ez badugu ere, beti

saiatzen naiz erosketak herrian egiten. Beti pikatzen dugu zerbait beherapenetan; errazago erortzen gara”.\*

## Tsunamiak

**M**aiatzaren 22an, Aldundi eta Udaletako hauteskondeek tsunami moduko emaitzak eman dituzte bai gure lurraldean eta estatuan ere.

Lehena, eskuinaren garaipen zabala PPren eskuetik, bere jarrera autoritarioa eta ultranazionalista indartuz ia Espainia osoan. Eta gurean, Bildu koalizioak lortutako emaitza ikusgarria.

Bada, beste tsunami bat, aspalditik gauzatzen ari dena Europa Batasunean. Grezian eta Espainian izan ezik, beste estatu guztietan eskuineko alderdiek gobernatzen dute, hemen orain PPrekin gertatuko den moduan. Zaila egiten zait hori ulertzea. Nola den posible Europako hiritarrek bozka ematea krisi ekonomiko larri hau eragin duten agente, finantziario eta ekonomikoak, eta hauen babesle-morroi bihurtu diren politikariei. Langabezia, pobrezia eta larritasuna eragin duten politikariei babesa ematea. Batere errurik ez dutenen gain zama eta neurri gogorrak ezarriaz. Oilategiaren zaintzaile azeri goseti



**HIGINIO OARTZABAL**

berak ipintzea. Bitartean, paradisu fiskalak armategi gastuak, errege etxearenak... horiek ezta ukitu ere.

Logikoa da eredu ekonomiko anker horrek sortu duen erantzun zibilaren tsunami. M15ak hiriko eta kaleko enparantzak bete dituzte, baina galdera bat denon ahotan. Orain, ezker ideologiak erabateko porrota izan eta indargabe azaltzen denean (komunismoaren porrota, sozialdemokraziaren desagertzea eta orain sozialismoaren gainbehera), zein da horren alternatiba? Asmatuko ote dute berdeekin eta ekologistekin... beste bide bat egiten?

Bilduren tsunamiaren ere ez da nolana hiko. Baina, orain, lortutakoa ondo bideratu behar da. Eta, politika egiteko beste modu bat badela frogatu. Eneko Etxeberria alkate berriaren aurkezpen hitzak zentzuzkoak izan dira, baina esandakoak betetzen ahalgindu beharko du; batez ere, denen alkate izaten, esana eta izana bat izateko. Pribilejiorik ez inori, ezta diskriminaziorik ere.\*

**Galdetzen hasita, hirugarrenengan, azkenean, etorriko ote da Patxi Lopez Azpeitira san inazio bigarrenenez?**

 **Uztarria**

## Miresmenez

**I**kastolen mugimenduaz hitz egin du Benito Lertxundik Olatz Pratek *Urolako Kostako Hitza*-rentzat egindako elkarrizketan. Miresmenez hitz egiten du sorrerako urteez eta lortutakoaz. “Frankismoari atzaparretatik hezkuntzaren ardura kentzea sistema propio batekin, ikarragarria iruditzen zait”, zioen, Euskal Herriak inoiz ez duela ikastolen adinako lorpenik egin gaineratuta. “Gaur konturatzen naiz, inoiz baino hobeto gainera, gure gune nazional bakarra horixe dela, ikastola”.

Hori irakurrira, Joseba Sarrionandia idazlearen beste esaldi bat etorri zait gogora, “Euskara da gure territorio libre bakarra” esaten duena. Ezin zailtzan jarri hezkuntzak herrien euskalduntzean izan duen garrantzia, ikastolek nahiz D eremuan irakatsi duten gainerako eskolek. Industrializazioaren ondorioz etorritako espainiarren seme-alabak euskal hiztun bihurtu dituzte. Asko egin dute, baina aurrerantzean ere asko izango dute egiteko. Etorrikin bada-



**MIREN GARATE**

toz, eta etortzen jarraitu beharko dute, zalantzarik ez.

Ez dut uste euskara ikastea aski denik integratzeke, baina ez nuke nahi integratzea posible izatea euskararik jakin gabe. Erronkak badu beste zailtasun gehigarri bat: etorkinak ez dira Espainiakoak, arabiar herrialdeetakoak baizik, kultura are ezberdinagoak, alegia. Euren errespetatuz gurean nola txertatu –gogoratu nolako polemikak sortu diren buruko zapiarekin-, datozen ikasturteetan aurkitu beharko dira formulak, haurren kasuan bexalaxe, helduenean ere bai.

Benitok bezala nik ere miresten ditut ikastolak sortu zituztenak eta euskararen alde lan egin duten beste guztiak. Tartean, nola ez, orain 13 urte euskaraz komunikatzeko bidean Uztarriaren beharra ikusi eta hura sortu zutenak. Eskerrik asko bi hilean behingo kolaborazio hau egiteko emandako aukeragatik. Zutabe honekin oporrak hartzen ditut.\*

OTSOBELTZ



andoni salegi





## Zutabegilea

**O**rdurak sartzen ditut artikuluok idazten. Ideia bat dudala hasten naiz, bukaera ere pentsatuta izaten dut gehienetan, eta nola garatu nahi dudana ere jakin ohi dut, pantailaren aurrean jarri aurretik. Hala ere, lehenengo idatzialdian ez du batek nahi bezala irteten, eta berriro irakurtzen dut. Eta konturatzen naiz baten bat mindu dezakedala halako gauza idatzi dudana moduan jartzen badut, eta gero aldatu egiten dut, eta goxatzen saiatzen naiz, eta goxatu dudanean estruktura guztia aldatu diot, eta testuak ez dauka estrukturarik, eta hainbat gauza kentzen ditut,

eta jarri nahi ez nituenak jartzen ditut, eta hasierako ideiak irauten du baina bukaera aldatuta dago, eta garapena ere bai, eta ez zait gustatzen idatzi dudana, jadanik ez da hasierako ideia zoragarri hura, eta pentsatzen dut 'hil honetan ere erdipurdiko jarduna idatzi duk', eta gainera entregatzeko epea bihar bukatzen da.

Eta bihar gaur da, eta halako batean bidaltzen dut, eta Uztarriatik deitzen dit A.k, eta 'viudak' aitatzen dizkit, eta ezin dela 'viuda'rik ipini, eta ea ba al dakidan zertaz ari den, eta esaldi batzuk solte geratzen omen dira zuta-



■■■■■■■■■■ eñaut frantsesena ■■■■■■■■■■

bearen hasieran, eta esaldi batzuk kendu behar direla hori gerta ez dadin, eta gainera hil honetan nire azpian zer edo zer handia sartu behar duela eta moztu egin behar dela bestela ere. Eta saiatzen naiz moztzen, eta bidaltzen diot, baina hala ere ez da nahikoa, eta bigarren zutabean ez dakit zer falta dela, edo hirugarrenean sobrate dagoela esaten dit, eta beste behin moldatzeko.

Inoiz leitu al duzue zer marraztu ez dakien, eta entregatzeko epea gainera datorkion marrazkilariaren istorioa? Ba hau istorio bera da, zutabegilearen bertsioan.✳



Osasun Arreta Ziurtagiria  
duen Euskal Herriko  
lehenengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)



**EIBARKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALA**

Jardineta,3  
20600 EIBAR

**2011/2012**

**MATRIKULA OFIZIALA** ekainaren 30etik uztailaren 14ra

**HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA**

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) orrian.  
Argibide gehiago: [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian edo **943 200 618** telefonoan.

# Biribilgune festa

Trafikoa arintze aldera, pausoa-pausoa errotondak eraiki dituzte herrian. Uztarriak garrantzitsuenak jaso ditu argazkitan. 📍📷 Ainitze Agirrezabala eta Orhantza Alegria





### ▼ AUZARAZA.

Biribilgunea 2002an eraiki zuten, baina harrezkero hainbat egokitzapen egin dituzte. Loiolabide eta Auzaraza auzoetarako sarrera-irteerak ahalbidetzen ditu.



### ▲ ATXUBIAGAKOA

Urrestillarako, Landetarako, Zabaletxeko biribilgunerako eta Orendaundi eta Antzibarrena poligonoetarako sarrera-irteerak ahalbidetzen ditu.

### ▼ KIROLDEGI AURREKOA.

Herriko biribilgunerik erabilienetakoa da. Sahiesbidean dagoen biribilguneetako bat da eta Landetarako eta erdigunerako sarrera-irteera garrantzitsuenetakoa da.







### ▲ **ETXEBELTZ-IZARRA.**

Azpeititik Loiolara bitarteko etorbidean zen errepide zuzena hautsi zuen 2010.urtean eraiki zuten errotondak. Etxebeltz-izarra auzoko etxe berrietarako sarbidea ahalbidetzen du.

### ▶ **GAZTEKO ERROTONDA.**

Urrakiko eta Errezilgo bidegurutzeak lotzen dituen biribilgunea 2004. urtekoa da. Corrugados enpresa eta Antzibarrena eta Orendaundi industriaguneetarako sarrera-irteerak ere ahalbideratzen ditu errotonda honek.



### ▲ **ARZUBIA.**

Herriaren erdian kokatuta dagoen biribilgunea 2002. urtean eraiki zuten. Garai batean, bidegurutze arriskutsua zen oso.



### ▲ **AMUE, 2007.**

Corrugadosera zihoazen kamioentzat eta Arretxe poligonoko enpresetarako sarrera-irteerak errazteko egin zuten.







### ▲ ZABALETXEKO (2011)

Sahiesbideko lehen zatiko lanak Landetako errotondan hasi zituzten, ondoren Zabaletxe biribilgune berriarekin lotu eta handik Larreko industrialdea zeharkatuz Atxubiagako errotondarekin bat egiteko. Landeta-Atxubiaga arteko ibilbideak kilometro bateko luzera du.

### ▼ SANJUANDEGIKO BIDEGURUTZEA.

Azpeitiko GI-631 errepidean Sanjuandegiko errotonda eraikitzea, Auzarazako errotondara arteko etorbidea eraberritzea, eta zati horretan oinezkoen pasabide berria egitea onartu zuen Foru Aldundiak, 2003 hasieran, eta lanak 2004ean egin ziren.





# Amets gorria

Duela 27 urte, lehen Kontxako Bandera irabazi zuen Zumaiako Telmo Deunek. Tripulazio hartan azpeitiar baserritar ugari zeuden. 📌📍 Ainitze Agirrezabala

**1** 984ko irailaren 9a egun historikoa da Zumaian. Aurrenekoz, Kontxako Bandera irabazi zuen Telmo Deunek, erabateko nagusitasunez. Donostiakoa, ordea, ez zen bat gehiago izan. Denboraldi hartan, jokatutako bandera guztiak irabazi zituzten arraunlariek. Ontzi hartako mutilak heroi bihurtu ziren jarraitzaileentzat, garaipen hark Zumaia arraunaren historian sartu zuelako.

Geroztik, talde haren ezaugarriez asko hitz egin da. Javier Lauzurika 'Estrobo'-k garai hartan lanbide zuen estropadak jarraitzea, eta *Baleike* aldizkarian adierazi zuenez, "tripulazio hura gaindiezina izan zen; ez zuen parekorik. Denetik zeukan: kalitatea nahi beste, eta indarra, oraindik eta gehiago". Izan ere, koa-drila hartan lehorreko jendea ere bazen, tartean Azpeitiko, Urrestillako, Matxinbentako eta Errezilgo baserritarrak. Iraganean atzera egin, eta duela 27 urte lortutako garaipen hura gogoratu asmoz, Telmo Deun ontzian arraun egin zuten hamar gizon elkartu ditu Uztarriak: Joxe Antonio Uzkudun, Julian Ibarzabal *Baioleitxo*, Patxi eta Martin Etxeberria anaia, Plaxido Aranburu, Antonio Arrizaba-

kontxako  
banderaz gain,  
denboraldiko  
guztiak, 19, Lortu  
zituen 'turbo deun'  
izenez bataiatu  
zuten ontziak

laga, Edu Aristi, Joakin Eizagirre, Jexux Orbegozo *Barrenetxe* eta Joxe Manuel Ezama *Ibartzabal* (Joxe Luis Ezama zenaren anaia).

## Bainuontzitik itsasora

Gehienek, denek ez esatearren, igerian ez dakitela aitortu dute; ez lehen eta ez orain. Ezamaren esanetan, "ordura arte urik handiena baineran ezagutu" zuen, eta hurrena itsasoan. "Nire txalupa jiratu izan balitz, aizkorarena, goitik behera azkar". Orbegozok kon-

tatu duenez, Tomas Aizpuru zumaiarrak "sekulako lata" ematen zion, arraunean hasteko eta hasteko. Nik, ordea, igerian ez nekiela esaten nion, baina hala zihoen hark: 'Igerian? Erortzen bahaiz aterako hautek! Hik tira! Igerian ez dakienak etorri behar dik arraunera; igerian dakienak ez dik egiten arraunean!'. "Ur handitan, zerumuga baino harantzago, igerian jakin gabe joan egin behar zen gero!", bota du Patxi Etxeberriak.

Bizitzan beldurrik handienak arraunean, itsasoan barrura joaten zirenean, pasatu zizutela diote. "*Gorri* zenarekin Zumaiaitik kasakristora irten genuen —hasi da kontaktzen Ezama—, eta enbata sartu zuen. Ia Marokoraino ailegatu ginen, eta gero bilatu ezin, non geunden arrastorik atera ezin. Hasi ginen zeharka-zeharka, baina Zumaian sartu ezin. Egun hartan, gainera, entrenatzailea, *Luxia*, ez zen etorri motordun txalupan. Nik arraunari gogotik eusten nion. Hura ez zitzaidan libratuko, ezta...!". Orbegozok ere ez du ahazten egun hura: "Nik pentsatu nuen, 'ba, oraintxe akabatzen gaituk!'. Beldurgarritzko olatuak bi aldeetara, Zumaiaiko portuan sartu ezin eta



Denboraldia bukatu ondoren egin zieten arraunlariei ongietorria Azpeitian. Argazkian, arraunlariak denboraldian lortutako banderekin. **Pepe Gil**

trabeska-trabeska Getarian irten genuen, 22:30ean, ezer ikusten ez zela. Itsasotik erre-pidean poliziaren argi gorriak-eta ikusten genituen, denak gure zain. Ailegatutakoan *Luxiak* erretolika ederra bota zigun".

"Tonto-tonto eskapada batzuk egindakoak gara", adierazi du Arrizabalagak. "1981ean, morruaren sarreran eskapada serioa egin genuen. Olatuak hartu gintuen, pixka bat txalupa jiratu zigun eta paretaren kontra joan ginen zuzenean. Mutiletako bati arrauna kati-gatu zitzaion eta uretara bota zuen. Patroiak uretara salto egin eta atera zuen". Espigoia egin aurretik Zumaiak "sarrera txarra" zuela adierazi du Aristi patroi ohia. "Lehen, sarri-sarri joaten ginen Getariara entrenatzera, han sartu-irten hobea baitzegoen".

### Sekretua: taldea

Jokatu zituzten estropada guztiak irabazteko eta Kontxa lortzeko, bazen oinarri bat: taldea. *Luxiak* arraunlariak entrenatzeko ardura hartu zuenean, horixe eskatu zien, "taldea izan behar zutela, batera ibiltzeko, lagunak izateko. Taldearen barruan taldetxoak ikusten

bazituen, arrauna uzten aurrena bera izango zela". Arraunlari guztiek diotenez, duela 27 urteko arraunlari multzo hartan ez zuten "arazorik". "Lagunarte eta giro ederra genuen elkarren artean eta oraindik ere eusten diogu. Urtean hiru bat aldiz elkartzen gara bazkaltzeko, emazte eta seme-alabekin. Gure artean ez zegoen sekula haserretik". Lortutako emaitza onek lagunduko zuten horretan.

### Jatun eta adarjotzaille onak

"Los zumaiarres comen como reman" (Zumaiarrek arraunean egin adina jaten dute), horixe izan zen 1984. urtean *Diario Vasco* egunkariko izenburuetako bat. "Zumaiako Etxe Ona jatetxean zenbat bazkari eta afari egindakoak ote gara. Ezkontza batean bezala jaten genuen", adierazi du Arrizabalagak. Orbegozoren esanetan, "Bartzelona eta Real Madril futbol-taldeetako jokalariek bezala zaintzen gintuzten. Oso ondo, hobeto ezin. Kategoriako otorduak egiten genituen, hutsaren truke".

Estropadetan hainbesteko esfortzua egin-da, mutil haiek asetzen lanak izaten ziren.

"Etxe Onako erakusmahian postre aukera zabala egoten zen, azkenburuan jateko zer zegoen bezeroek jakin zezaten. Estropada jokatauta eramaten genuen gosearekin, aurreneko platera atera arte zain egon ezin, eta erakusmahaitik pastelak hartu, mahaiaren erdira atera eta postrea janez hasten ginen. Gero, zizka-mizkak ateratzen zizkiguten. Batera kubiortorik gabe, eskuekin, a zer nolako abiada eramaten zuen urdaiazpikoen platerak. Han ez zegoen lo geratzerik!".

Estropaden ostean ez ezik, entrenamendu saioak bukatu eta gero ere Zumaiako elkarteren batean, koadrilan, afariak egiteko ohiturarik ez zitzaion falta. "Astero, zazpikotea elkartzen ginen afaltzeko —hasi da kontatzen Arrizabalaga—. *Los siete magnificos* esaten ziguten, eta zazpi lagun, zazpi kilo kostilla jaten genuen. Buruko kiloak". "Jan, genuen sasoiak eta gosearekin, baita ardi-zaharra ere!", gaineratu du Patxi Etxeberriak. Hango "gauzarik ederrena lagunartea" zela dio Orbegozok: "Afari ederrak egiten genituen, bai, elkarrekin. Koadrilan bagenuen sukaldari bat, *Txatarro*, eta koneju jana egin behar genuela eta ▶



►konejuen lekuan katuak preparatu zizkigun. Guk ezta antzeman ere, esan zigun arte. Nik lehenengo katua hantxe jan nuen”.

Giro ona soberan, koadrila hartan jaten ez ezik adarra jotzen eta bromak egiten ere abilak ziren. Ezamak kontatzen duenez, “ostegunetan sprint berezi bat” izaten zen. “Batzuek neskarengana joan behar izaten zuten, eta entrenamendu saioan beste erritmo klase bat ateratzen zuten, andregaiarekin ordua jarrita izaten baiztuten. Saioa bukatuta dutxan sartzen zirenean, oinetakoetako lokarriak eta jertseetako mangak korapiloz betetzen genizkien *presa* zutenei”.

“Beste anekdota bat badut nik”, bota du Orbegozok. “Koadrilan afaldu eta Idoia tabernara –txalupak uretara jaisteko arranplaren aurrean zegoen– joan ohi ginen, trago bat hartzera. Beti han egoten zen gizon egoskor batek jardun ederra edukitzen zuen: ‘zuek ez daukazue indarririk!’, esaten zigun. ‘Egon hadi isilik, bestela arranplan aparkatuta duan txalupa uretara botako diagu-eta. Hori botatzeko hiru bat lagun nahikoak gaituk, e!’, esan nion batean. ‘Zuek niri txalupa uretara bota?’, erantzun hark. Bapo afalduta, txalupari heldu eta uretara bota genion. Haserre bizian jarriko zela pentsatzen nuen, baina hura gustura. Harrezkero, gehiago ez zigun esan indarririk ez genuenik”.

### Kontxa, egun handia

Arraunaren diziplina gogorri erantzuteko, “entrenamendu saio latzak egitea beharrezkoa” zutela adierazi du Orbegozok: “Santotomasetan entrenatzen hasi, eta Pilariketan bukatzen genuen arraunaren denboraldia. *Amor proprio* handia behar da. Tailerrean hamar ordu sartu, etxean ukuluan ganadu



Telmo Deun ontziko mutilak arraunari gogor eragiten, 1984. urtean. **Uzkudun**

## Heroiak

III Duela 27 urte, zumaiarren garaipen ikusgarri haiek hizpide, garai hartako egunkarietako tituluetan argi geratzen da Telmo Deun ontziak ez zuela parekorik eta garaitezina zela.

‘Zumaia historia da orain’ idatzi zuten egunkari bat baino gehiagok. Telmo Deun ontziak Kontxako marka berria jarri zuela ere nabarmendu zuten kazetariak. Aurretik Santurtzik zuen, baina hankaz gora bota zuen Zumaia egindako 20.03ko denbora hark.

‘Zumaia: txapeldunaren distira’, ‘Zumaia: ehun eta bost urte apoteosirako’... Txalupa hartako mutilak heroiak bihurtu ziren Zumaia herriarentzako eta zaletuentzako.\*

jirok egin eta egunero hara. Etxera ailegatzerako 23:00 paseak izaten ziren”.

Botatako izerdiek eta pasatoko sufrimendu guztiek, ordea, eman zuten beraien fruitua. Ez zen ezustea izan Kontxa irabaztea. Lehen igandean sekulako aldea lortu zutelako, eta denboraldi osoan nagusi izan zirelako. Estrobo arraun adituaren esanetan, “talde hark etsita zeuzkan beste aurkari guztiak. Orio zuen aurkari nagusia, baina ezin izan zuen zumaiarrekin. Talde gorriak konplexuz bete zituen gainontzeko guztiak, ezin ziotelako irabazi. Gogoan daukat urte hartan zein izaten zen estropadetan joko ematen zuena, zein izango zen bigarren. Zumaia irabaziko zuela jakinekoa zelako”.

Kontxa irabazi zuteneko eguna “sekula ez dutela ahaztuko” diote arraunlariek. “Bizitzako egun handienetako da; oso berezia izan zen. Herri osoa kalera atera zen harrera egitera”.\*

arte eta diziplina ikastegia

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

**Iuba**  
aholkularitza

Aholkularitza  
Finantza  
Laborala  
Kontablea

Gestori lanak

Finken administrazioa  
Gestio Inmobiliaria

Tlf: 943 157 325 Faxa: 943 157 278  
Euzkoan kalea, 45 • Iuba.euzkoan.net

**KIRURI**  
K

**JATETXE**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Tlfnoa.: 943 81 56 08  
Faxa.: 943 15 03 62

**ORDULARI**

Jose de Artetxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

# Erreleboa hartuta

**Lotua eta diziplina gogorreko kirola izanagatik, herriko hainbat mutil eta neska ibili ziren eta badabiltza arraunean. Haietako zenbaitek euren esperientzia kontatu die Uztarriari.**

**G**urean arrauna oso errotuta dagoen kirola izan ez arren, kostako talderen batean beti aurkitu daiteke barrukoren bat arraunari tiratzen.

Ugaitz Agirregomezkorta (1981) herrikidea urtero joan ohi zen Donostiara, Kontxako estropada ikusteko aitzakian parranda egitera. 2002ko iraileko bigarren igande hartan berotu eta arrauna probatzeko gogoia sortu zitzaion barrenean. "Garai hartan *Xague* azpeitiarrak Zumaian tiratzen zuen, eta haren bidez harremanetan jarri eta hala hasi nintzen". Zortzi denboraldi egin ditu mutilak, eta ia ez uztea erabaki zuen. "Zumaian hasi banintzen ere, trainerilla denboraldia bukatuta Zarauzko taldera joan nintzen, zedituta. Han zazpi denboraldi eginda, uzteko asmoa nuen, baina Zumaian deitu zidaten eta han azken urtea egin nuen. Ligan azken aurrenak geratu ginen, eta *play-off*-etan ekipoa goian mantentzea lortu ostean utzi nuen".

"Diziplina gogorreko kirola eta lotua" izan arren, arraunean bizitako esperientzia "oso ona" izan dela adierazi du: "zailena hastea da; behin hasitakoan, jendearekin izugarritzko hartu-emanak egiten duzu. Egunero elkarrekin bi ordu pasatzen ditugu, eta oso desberdina da bi ordu tabernan pasatu edo sufritzen pasatu. Azkenean, jendea oso ondo ezagutzen duzu, zuk beraiengatik ematen duzu, eta haiek zuregatik. Gero, kostan egiten da hori lagatzea. Esapideak dio arraunean egiten diren lagunak betirako dirrela, kontrarioak bezala". Gogorrena "negua" dela dio, "jardun



Goiko argazkian, aurretik hasita hirugarrena, Agirregomezkorta. Beheko argazkian, aurretik hasita bigarrena, Sagardogi trainerillan.

eta jardun, urruti ikusten duzu denboraldia, eta pentsatzen duzu 'horrenbeste egin beharra al dago?'; gero konturatzen zara aurretiko lan hori beharrezkoa dela".

Suhiltzailea da, eta "lanak denbora libre asko" uzten bazion ere,

"arraunak asko lotzen" zuela dio. "Orain mendi lasterketak ari naiz egiten. Maineran 102 kilometroko ultra trail-a egin dut, 15 ordu eta 40 minututan eta so gustura bukatu nuen. Orain Austriara noa, 70 kilometroko proba egitera. Baina, egia esan, arrauna fal-

tan botatzen dut eta seguru asko bueltatu egingo naiz".

## Sagardogi, Zarautzen

Hasiberria den denboraldia bigarrena du Igor Sagardogik (1986) arraunean. Kirolerako "zaletasuna betidanik" izan duela adierazi du: "Lehen, bizikletan ibiltzen nintzen, Quebrantahuesos proba ere prestatu nuen, baina hanke ez zidaten asko laguntzen. Talde lanean egiteko zeozer nahi nuen, eta hala egunkarian irakurri nuen Zarauzko taldeak arraunlariak behar zituela, eta arraunean has-tea erabaki nuen".

Iaz, bere lehen denboraldian, "oso gustura" ibili zela kontatu du: "KAE-2 ligan aritu nintzen eta aurtengorako harra oraindik eta gehiago piztu zitzaidan. Iaz TKE-tik jaitsi egin zen Zarautz, eta txalupa bakarra dugu, KAE-1-ekoa".

Sagardogi banatzailea da lanbidez, eta goizak lana eginda, arratsaldeak libre izaten ditu: "Alde horretatik ondo, siesta egiteko denbora eta dena izaten dut. Gero, entrenamendutik bueltan, etxera heltzerako 22:00ak izaten dira, baina gustura bazabiltz eta egiten duzunak betetzen bazaitu, ez da horren gogorra egiten. Gogorragoa da udan, traineruan bihuru hilabetez lehiatzeko eta gozatzeko urte osoa entrenatu beharra. Urria alderako hasten gara prestatzen, luze egiten da, eta entrenamenduz gain elikadura eta pisua zaindu beharrek sakrifizio handia eskatzen du".

Zarauzko taldea ligari ekiteko "gogotsu" dagoela azaldu du, "arraunean gozatu eta denboraldi txukuna egiteko nahiarekin".

## Neskek ere bai

Orain dela gutxi arte arraun gizonen kontua izan bada ere, gero eta emakume arraunlari gehiago dago. Ione Etxaniz eta Ane goenaga azpeitiarrak 2002. urtean Zumaian aritu ziren batelari. Parrandako lagunarteko erronka bati aurre egin ondoren hasi ziren arraunean. ✪



# Bertsoez hizketan

Erniarraitzeko lauk lortu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren faserako txartela. Txapelketa hizpide, solasean aritu dira. 📝📺 Xabier Otamendi

**G**ipuzkoako Txapelketa dabil azkenaldian bertsozaleen ahoetan bueltaka. Aurreneko fasea amaitu berria da eta irailean ekingo diote bigarrenengoari. 60 parte hartzaileekin abiatu zen fase hura, eta haietatik 32k lortu dute irailean jarraitzea. Erniarraitzeko lau kide daude bertan. Eneritz Artzallus, Urko Egaña, Beñat Lizaso eta Jokin Uranga. Mahai baten inguruan bildu ditu Uztarriak laurak, eta gehiegi kostatu gabe txapelketaz hitz egiten hastea ere lortu du.

Hasteko eta behin, mailaz galdetutakoan, "oso altua" dagoela azpimarratu du Egañak. Guztiek baietz diote, aurtengoak maila ederra daukala. Erniarraitzek erakutsi duen neurriagatik ere gustura daude, sei aurkeztu eta lau pasa direlako, besteak beste.

Txapelketak izan litzakeen hutsuneei begira, kostata, bat aurkitu diote. Goizetako zenbait saiotan jende gutxi izan zela gogoratu du Urangak. Egañak gogoratzen du bere goizeko saioan kontatzen aritu zirela eta 32 ikusle zeudela. "Horrela, abestea zailagoa izaten da", dio Artzallus erreizildarrak, "hotz-hotza izaten baita saioa". Hala ere, Beñatek Soraluze zeko arratsaldeko bere saioan 100 lagun inguru izan zirela gogoratu du. Jokin ixilik dago kafesnea hartzen ari delako, baina amaitutakoan segituan hartu du hitza bere ikuspuntua goitik beheraino eskaintzeko. Guztiek bat egin dute berak dioenarekin, ordea: "Egia da jende askok hartu duela parte txapelketan,

eta nola hala, entresaka bat egin beharra dagoela", beraz, garbi daukate beharrezkoak direla goizetako saioak.

Txapelketa bi fasetan banatuta egoteak, neurri batzuk hartzera behartzen zaitu ber-

tsolarien ustez. Zaila da maiatzean mailarik onenean dagoen bertsolari bat, azaroan oraindik ere hala mantentzea, beraz, neurria hartzen jakitean ere badago gakoa. Lizasok dioen bezala, "bestela erre egiten zara". Beraz, dirudienez, oraindik ez dute beraien onena eman Erniarraitzeko bertsolariak. Onena ikusteko, datorren ikasturtean saioetara joatea besterik ez da gelditzen.

## Prestakuntza

Edozein txapelketa hasi aurretik aurreko lanak egin behar izaten dira, bai kiroletakotan eta baita beste edozein motatakotan. Bertsoan ere egiten dituzte. Erniarraitzen biltzen direnean, txapelketako saioen antzerako probak egiten aritzen dira. Norbere kontura egiten al duten galdetuta Eneritzek azkar dio esan egin zuela, baina egin gutxi: "Nik ez dut ezer ere egin. Esan beti egiten dugu baina... bertso eskolakoaz aparte bat ere ez". Beñatek ere hala dio, "dexente hasi ginen, baina, azkenerako nazkatu egiten zara". Jokin, berriz, adierazi du "txapelketan bakarkako lana egin behar izaten dela lepo. Bertso eskolan erritmoa ez galtzeko biltzen gara, baina, bakarkako lana dago". Hori entzun orduko honela bota du Lizasok: "Nire tailerreko makinak hitz egingo balu... makina bat aldi ez entzun nau bertsoan".

Saio guztiak borobil amaitzea ez da erraza izaten. Batzutan lortu izan dute, beste batzu-

## Kanporatuak

||| Erniarraitzeko beste bi bertsolari ere hartu dute parte Gipuzkoako Txapelketako bigarren saioan. Nekane Zinkunegi eta Josu Oiarzabal *Xenpelar*-ek, hain zuzen ere. Faktore asko hartu behar izaten dira kontuan bertsoan egiterakoan, eta batzuk ez zituzten alde izan; horregatik, ez dute lortu bigarren saioan parte hartzerik. Hala ere, bigarren fasean dauden bertsolariak "etorkizun ona" ikusten diete bie. ✨



*Xenpelar*, pentsakor. **Gpuntua**



Eneritz Arzallusek, Jokin Urangak, Beñat Lizasok eta Urko Egañak irailen jarraituko dute lehia.

tan aldiz, ez; izan ere, nerbioek asko baldintzatzen dute taula gaineko egonaldia. Urko Egañak adibidez, aurrenekoan gustura ibili zela dio, baina "neure buruari jarritako presioagatik edo, urduri jarri nintzen bigarrengean. Helburua jarria nion neure buruari, ahal zen ondoena egin eta bigarren fasera pasatzeko, baina, puntuekin ongi nindoala ikusita ba, urduri jarri nintzen". Eneritzi alderantzizkoa gertatu zitzaion. Aurreneko saioa "desastre" egin zuenez, bigarrengean huts egiteko batere beldurrik gabe joan zen, "seguru" baitzekien ez zela pasako. Lasai joan, eta gustura irten, halaxe egin zuen azkenean, bigarren fasera pasatzeko lortu baitzuen.

Beñat Lizasok, berriz, hala kontatzen du bere saioen inguruan hitz egiterakoan: "Aurrenekoan oso ongi ibili nintzen, eta bigarrengeko pentsatuta neukan beste hainbeste eginda nahikoa izango nuela, baina kaka bat egin nuen; eskerrak aurrenak bapoa irten zuen". Urangak aurreneko saioan lehenengo postua lortu zuen, baina ez zen oso gustura gelditu: "Aurrena egin nuen, baina Eneritzek esan duen moduan, sentsazio aldetik, ez nintzen oso gustura gelditu". Bigarrengean, ordea, "saio batera joan behar den bezala joan" zela gogoratzen du. Ordura arte puntu gehienak zeuzkaten batzuen aurka aritzea tokatu zitzaionez, beste motibazio batekin "borrokarako gogoarekin" joan zen, eta "ondo irten" zitzaion. Hala ere, badaki berdin-berdin azken postuan gelditzeko aukerak zituztela, behin gora irtendakoan, denok berdinak gara konturatzen baitzara". 301 puntu lortu zituen orduan; bakarra izan zen 300 puntu baino gehiago egiten arratsaldeko saio batean.

Noraino iritsiko den galdetuta, inoiz ez duela pentsatu horrekin dio Jokinek, hau da; "nik dakidana da hurrengo saioa urriaren 1ean izango dudala, eta irabaztera joango naizela, nahiz eta badakidan azken postuan gelditzea ere posible dela". Beñatek dio, polita izango litzatekeela Azpeitian egingo den final laurdenean izatea, baina "azken saian egin nuena eta gero... ikusi egin behar".

### Txilera

Uztailean Txilera doa Eneritz ikasketak direla eta. Beraz, Txapelketa utzi beharko du, gabonak ingurura arte ez baita itzuliko etxera. "Inor ez da iritsiko ni helduko naizen tokira. Nik egin dut egin beharrekoa. Apuntatzeko ere dudatan aritu nintzen eta". Azkenean, ordea, ingurukoek emandako animoekin apuntatzea erabaki zuen. ✨





euskara eta komunikazioa

**Diseinua:**

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Web orrien diseinu eta programazioa
- Iragarkiak



haritz etxeberría 'ministro'

josu oiartzabal 'xenpelar'

# Iruzurra

**M**inistro. Herri-zaingo sailak esaten dik kontuz ibiltzeko, azken aldian iruzurgile asko dabilelako.

**Xenpelar.** Bai, lehen ere ibili hituen etxeetara deika, sari bat irabazi huela esanaz. Ondoren saria jasotzeko-eta 806... telefonora deitzeko esaten ziaten. Dei hori ahal zuten gehiena luzatzen saiatzen hituan, diru kantitate handiak kobratzeko.

**Ministro.** Telebistan ere hamaika iruzur egiten ditek. Boligrafo magikoa, kotzeko urratu guztiak kentzen omen dituen; saunatronika, sabelean jarri eta sofán eserita argaltzen omen hauena...

**Xenpelar.** 'Teletimoak' modan zaudek, iluntzeko ordu txikietan egoten dituk gehien; aldatu zure bizitza oihukatuz, aberastu telefono dei batekin, horrenbeste desio duzun edertasuna lortu... Bazekitek ederki ordu horretan telebistari begira dagoena ez dabilela oso ongi eta engainatzeko biktima erraza dela.

**Ministro.** Azkena, *Kontsumitzaileak* programaren berri izan nian. Egunero kontsumitzaileok jasaten ditugun iruzurrak salatzen omen dizkitek. Zer gauza erosi aholkatzen ere oso abilak omen dituk.

**Xenpelar.** Kar, kar, kar... orain iragarkiak egin beharrean, iragarkiz betetako programak egiten hasi dituk.

**Ministro.** Eta futbola? Hori bai dela iruzurra, hasi eta bukatu egiten dela esaten zigutek baina ni ez nauk oroitzen noiz hasi zen eta ez duk inoiz bukatzen.

**Xenpelar.** Ikusi al duk Carrero Blancoren pelikula? Bakarrik falta huen amaieran E.T agertzea telefonoarekin tiroak botatzen.

**Ministro.** Etxebizitzekin ere sartu zigutean ederra. Erosi etxea, inbertsio segurua da eta

**XENPELAR.** "Demokrazia bera duk iruzurrik handiena"

**MINISTRO.** "Lotsagarria duk, ostia txarrean jartzen nauk"

beharrezkoa. Banketxeak zuri laguntzeko daude, hipoteka zaitez bizi osorako eta lasai zure seme-alabek bukatuko dute ordaintzen.

**Xenpelar.** Demokrazia bera duk iruzurrik handiena. Esaten ditek pertsona bat boto bat dela, baina mundua bederatzi familien esku zagok. Beraienak dituk bankuak, arma konpainiak, drogak eta komunikabideak. Wikileaks-ek oso garbi utzi duela uste diat.


**Ministro.** Egongo ez gaituk ba haserretuta. Hau lotsagarria duk, ni samindurik, ostia txarrean, gorrotoz betea jartzen nauk.

**Xenpelar.** Ederki esan zian Txirritak 'Lapur txikiak kastigatzeko Nonahi badago kartzela / Haundiak hor ikusten ditut Paseoan dabilzala'.\*





# Uztailean, oinei eragiten

Jose Mari Orbegozok zuzendutako saloiko dantzen emanaldiarekin hasiko da Azpeitia dantzan ekimena, hilaren 10ean. Datozen hiru asteburuetan ere emanaldiak izango dira.  Ainitze Agirrezabala

**J**ose Mari Orbegozok zuzendutako saloiko dantzen taldeak emango dio Azpeitia dantzan egitasmoari hasiera, hilaren 10ean, Sanagustin kulturgunean (20:00).

Hala ere, beste hiru emanaldi gelditzen dira datozen asteburuetarako. Hurrengo, hilaren 16an, larunbatean, izango da, Sanagustin kulturgunean. Azpeitiko Itsasi Dantza taldeak 'Sokadantzan' izeneko emanaldia eskainiko du, 22:00etatik aurrera. Sokaz, dantzaz eta sokadantzaz beteriko emanaldia da Itsasik prestatu duen bere azken ikuskizuna. Dantza tradizioaletan ohiakoak diren soka dantzetatik abiatuz, eta azken urteetako ildo bereetik jarraituz dantza zahar eta koreografia berriak izango dira ikusgai lan honetan.

## III DATUAK

III **Zer.** Azpeitia dantzan.  
III **Eguna.** Uztailak 10, 16, 24 eta 31. III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea eta Olazko Andre Mariaren plaza. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala, Itsasi eta Sahatsa dantza taldeak.

Uztailaren 24an, Udmurtiako Aikai eta Sahatsa taldeen emanaldia izango da, Sanagustinen, 22:00etan hasita.

Azpeitia Dantzan ekimeneko azken emanaldia Saninazio Egunean izango da, 23:30etik aurrera, Olazko Andre Mariaren Plazan. Kolonbiako Orkéseos dantza taldearen emanaldia izango da. Emanaldi guztiak dohainik izango dira.\*

## III AZPEITIA DANTZAN

**4** emanaldi. Jose Mari Orbegozoren, eta Itsasi, Sahatsa eta Kolonbiako Orkéseos dantza taldeen ikuskizunak izango dira.

Hilaren **10** ean, lehenbizikoa. Saloiko dantzen emanaldiarekin hasiko da Azpeitia dantzan ekimena.\*



Itsasi dantza taldeko dantzariak. III Itsasi

## III BESTERIK

**1** Reala eta bertsolariak  
KMK-k 2011ren baitan bi ekitaldi antolatatu ditu Ikasberri Azpeitiko Ikastolak: Bertso saioa eta Realaren aurrendenboraldiko partida.  
III **Zer.** Bertso saioa. III **Eguna.** Uztailak 22. III **Tokia.** Soreasu.

III **Zer.** Realaren partida.  
III **Eguna.** Uztailak 23 (larunbata). III **Ordua.** 18:00  
III **Tokia.** Garmendipe zelaia.

## 2 Jubilatua Xoxotera

Mendiko ibilgailuetan plazatik abiatu eta Xoxotera joango dira. Han hamaiketako egin eta meza entzun eta behera jaitsiko dira, Xanjuandegiko Baigeran bazkaltzeko. Izena emateko azken eguna hilaren 14a da.  
III **Eguna.** Uztailak 16 (larunbata). III **Irteera.** 10:30, plazatik. III **Antolatzailea.** Udala eta Baigera.

**3** Zezen-plazan errekortadoreak  
Azpeitian jokatu den finalerdian hamasei errekortarik hartuko dute parte, eta Zezen Beltzek errekorte onena sarituko du. Azpeitian eta Tolosan (ekainak 26) jardundako hamasei errekortari onenek finala Tafallan jokatu dute, abuztuaren 17an.  
III **Eguna.** Uztailak 17 (igandea). III **Ordua.** 18:30 III **Tokia.** Zezen-plaza. III **Antolatzailea.** Zezen Beltz Elkarte.\*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)

uztailak

25

astelehena

# Santio Eguna

## Baserritarren Eguna

**09:00etan** Goiz eresia.

**10:00etan** Ilunpe Elkartearen XXVII. Pilota Txapelketa, Cesar Valverde Saria, Frontoi Txikian.

**11:00etan** Euskadi mailako ganadu erakusketa eta txapelketa. XIII. Gazta Lehiaketa. LORALDI balkoi eta leiho lehiaketaren sari banaketa.

**12:00etan** XXXIX. Sagardo lehiaketa, Plaza Nagusian.

Sagardo Festa honetan bezperan prestatzen hasitako txekor errea dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren herritar guztiek. Bildutako dirua hirugarren mundura zuzendua egongo da. Aldi berean, Itsasi taldearen Ttunturroek, bertsolariek eta trikilariek beren doinu eta kantuz plazako giroa alaituko dute.

**18:30ean** Desenkajonamendua, zezen-plazan.

**19:30ean** Txarangaren kalejira, kaleetan zehar.

**22:00etan** Musika emanaldia, Plaza Nagusian.

**Zatoz, Baserritarren Eguna giro onean ospatzera!**



azpeitia  
udala







||| **SOLUZIOAK** |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	E	K	●	R	A	K	A	R	A	Z	●
I	R	A	K	●	A	S	●	U	T	O	
D	●	K	A	L	R	I	●	O	T	I	●
L	A	N	D	I	R	A	K	●	A	E	R
A	R	A	●	E	L	E	A	R	O	●	E
E	I	●	Z	B	I	●	O	K	E	N	E
R	I	Z	●	E	X	E	●	E	●	●	●
U	A	T	●	E	X	E	●	●	●	●	●
E	L	A	Z	A	T	Z	●	O	R	A	●
●	●	H	●	●	●	●	●	●	●	●	●



HITZ GURUTZATUAK

I	Z	A	R	A	N	A	Z	I		
R	●	R	A	T	A	R	A	B	A	R
A	N	A	T	O	S	●	A	T		
N	A	B	I	T	A	●	L	E	I	
S	T	B	●	A	R	A	R	A		
O	O	Z	●	A	M	A	K	R	E	M
M	K	●	U	A	T	A	S	A	K	A
I	S	I	A	L	I	A	●	U		
L	A	B	Z	U	K	U	E	S	A	L

||| **ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?** |||||



||| **ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTTEKO EPEA.** Uztailak 18 (astelehena) ||| **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| **IRABAZLEARI SARIA.** Odriozola upategiko ardo sorta opari ||| **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| **ZER DAGO SOBERAN** // // // **ZER DAGO FALTAN.**

||| **ZURE IZEN-ABIZENAK**

||| **TELEFONO ZENBAKIA**

||| **UZTARRIAREN EKAINEKO ARGAZKI LEHIAKETA** |||||

ZEIN DA?



XABI BORDA IDAZLEA



IRABAZLEA



Iratxe Etxeberria Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 129. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Iratxe Etxeberria, saria eskuetan duela.

**ODRIOZOLA ARDOAK**

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103





## Gernu-erretentzioa

JONE AZKUE *Uztarría-ko banatzailea*

**A**razo hau gehitzen doa gizonezkoengan eta gutxitzen emakumeengan. Pixa egiteko zailtasunen kasuan ez du balio geroko edo hurrengo egunerako uzteak; diagnostikoa lehenbailehen egin behar da. Ez dezagun ahaztu gernu erretentzioa maskurian gerta daitekeela, edo gorago, behin giltzurrunek gernua ekoiztuz gero.

Gizonen artean txiza egiteko arazoak 50 urteren inguruan hasten dira, orduan hazten baita prostata. Arazoa ustekabeen edo pixkanaka agertu daiteke, txiza sarriago eginez. Askotan bidea zeharo ixten da, txiza egiteko ahaleginek ez dute balio eta maskuriaren dilatazioa sortzen da likidoa erretentitzen delako; eskuekin globo antzeko zerbait sentitzen da sabel azpian. Sentsazio benetan desatesegina da. Larrialdia zunda sartu eta pixkanaka maskuria hustuz konpontzen da. Trebetasuna eta zorte pixkat behar dira, ez baita beti erraza izaten ongi egitea.

Emakumeengan askoz arraroagoa da erretentzioa izatea, eta konponbidea ere errazagoa da. Kasu bietan, arazoa giltzurrunetakoa edo gertukoa bada gaixoa ospitalera eraman behar da, diagnostikoa egin eta erremedioa ipintzeko. Pixaren erretentzioari dagokionean, esan dezakegu emakumeek zorte handiagoa dutela gizozek baino.\*



||||||| **Julian bereziartua** |||||



### 1. Ale asko, lan handia...

Lana baino, bizkar gainean eramaten dugun pisua.

### 2. Erraz hartu trukua?

Hasieran egun osoa behar genuen; orain lau bat ordu.

### 3. Harrigarriena...

Bizilagunaren buzoitik lapurtzen ikusi dugu jendea.

### 4. Onena?

Lasanean gozokiak ematen dizkigute. Eskertzekoa da.

### 5. Eta, txarrena?

Zenbait ataritan buzoiak ordenatu gabe daude.

### 6. Sustorik?

Txalet bateko txakurrak kosk egin zidan.

### 7. Gustukoena...

Karrerako atea irekita bilatzea. Tinbre joka zoratu egiten gara.

### 8. Bitxikeriarik?

Tinbrea jo, 'Uztarría' esan, eta beste aldeko ahotsak: 'No, aqui no vive'.\*

**Ainitze Agirrezabala**

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonica.net

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia: 943 15 16 40

**Ekain**  
ALBAITARI KLINA

**ORKATZ KULTUR ELKARTEA**  
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

*lora-etxea...*

**Kimu bat**

**ASTE BUKAERAN IREKIA**

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

**AIZPURU AUTOAK**


Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO**  
**MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

# Badator Uztarriaren Pourra

Uztarria Komunikazio Taldeak Pourra antolatu du, hamaikagarren aldiz. Pourra 'www.uztarria.com/pourra/2011' atarian jarrai daiteke, eta sariak hilaren 30ean banatuko dira. -  Ainitze Agirrezabala

**POURRA 2011**  
uztailaren 2tik 24ra **EGIN ZURE APUSTUA!**

**U**ztailaren 2an hasi zen Frantziako Tourra eta Uztarria Komunikazio Taldeak Pourra antolatu du, hamaikagarrenez.

Aurtengo Pourrak aurreko urteetako funtzionamendu bera du. Partehartzaile bakoitzak bederatzi txirindulari aukeratuko ditu, eta Tourra bukatzean banatuko dira sariak.

Pourra, osorik, [www.uztarria.com/pourra/2011](http://www.uztarria.com/pourra/2011) atarian jarrai daiteke. Eztabaida ere ireki

## ||| INKESTA |||

**Kalean eskean daudenei dirurik ematen?**

**Bai.** %??,? / **Ez.** %??,?

**Batzutan.** %??,?

**Dirurik ez, jatekoa bai.** %??.

**||| Oraingo galdera. Testua**  
efeeeeeeee deeeeeeeee  
eeee efefee?

dugu, eta han bota ditzazkezu zuen iritziak eta erronkak.

Ohitura den bezala, sari banaketa Saninazio bezperan izango da, hilaren 30ean. Uztarriak Erdi kalen jarriko duen tonbolan egingo da, 20:00etan hasita. Lehen hiru sailkatuek jasotako diruaren %30, %20 eta %10 jasoko dute, hurrenez hurren. Sari hauek ere izango dira: Kirurin bi lagunentzako afaria, talasoterapiako bi lagunentzat zirkuitua...\*

## ||| EFEMERIDEAK |||||

# 1814


**Zezena zauritu.** Arratsaldean plazan jolastu zuen zezen bat baionetarekin zauritu zuen guardian zegoen soldadu batek.

# 1893

**Orduak kantatzeko eskatu.** Eliz kaleko Eugenio Amenabar eta beste batzuek, gauzainek beste kaleetan egin ohi zuten bezala Eliz kalean ere orduak kantatzeko agintzea eskatu zuten. Udalak hala erabaki zuen.

# 1648

**Hildako animaliak ibaira botatzea debekatu.** Ura kutsatu eta gaitzen bat sorzitekeen. Hildako animaliak erre edo lurperatzea erabaki zuten.\*

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. *Herria historian zehar* liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

**www.uztarria.com**  
azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak  
||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita







**1.** Galiziako As Catedrais hondartzan. **2.** Ama eta osaba Antoniorekin Arantzazura egindako egunpasan ateratako argazkia. **3.** Zubiolan antolatzen zuten futbol-txapelketan parte hartu izan zuen, hamar bat urtean. Susperregi, behean, eskubitik hasi eta bigarrena.



# Elizako hormetatik at

Elizako lanak bukatuta, bizi lasaia egiten du eta konpromiso handiko gizona da. 📌📷 Ainitze Agirrezabala

**E**txean berarekin bizi den osaba Antonioren urtebetetze eguna izanda, Alemanian bizi den Ixiartxo lehengusua eta Erreterian bizi den izeba Antonita bisitan etorri zaizkie, Azeitira. Gonbidatuei diosala egin, konpromiso bat duela baina berehala itzuliko dela esan, eta Uztariarekin duen hitzordura fin azaldu da Kepa Susperregi.

Bizitzako pasarteez hizketan, gizonak ez du herdoilik mingainean, ezta amaraunik ere memorian. Jaiotzez erreteriarra izanagatik, hizketan azeitiar ukitu handia du. "Ama jaiotzez urrestildarra da, Makibarkoa, eta haren euskara jaso dut; ez Erreteriakoa. Nik beti 'xei' esan izan dut, eta aitaren lagun batek 'Azeiti' deitzen zidan mutil koskorretatik".

26 urte dira apaiztu eta Patxi Aizpitarterekin batera Azeitira bizitzera etorri zela. Konstatzen duenez ez zitzaion arrotza egin herria: "Izeba-osabak eta lehengusuak badituz hemen, eta gogoan dut 15 bat urte nituela hila bete pasatu nuela haien etxean, lehengusuari pare bat ikasgarekin laguntze aldera".

Norbere gustuko gauzetarako denbora liberrik apenas duela adierazi du. "Memento nonetan bizitza nahikoa hipotekatuta daukat. Nire parroki bizitza eta bailaran ditudan ardu-

## ||| MOTZEAN |||

### GALTZEKO TXOKO BAT?

Jaizkibel ingurua. Leku ederra da.

### ZERK POZTEN DIZU EGUNA?

Amaren irribarreak eta zenbait jenderen gertutasunak eta esker onak.

### ETA ZERK GARRAZTEN?

Inguruan sortu daitezken istiluek.

### APAIZA EZ BAZINA?

Irakaslea.

### OROITZAPEN BAT?


Umetan, aitak oporrak hartzean amaren jaiotetxean pasatzen genuen uda.

### AMETS BAT?

Alzheimerren gaixotasunari aurre egiteko botika asmatzea.

### LIBURU BAT?

'La ciudad de la alegría' ✨



Perez Arregi plazatik Trenaren Museora bidean dagoen zubia gustuko du Susperregik, handik Enparan Dorretxea eta Frantziskanak ikusten direlako.

rez gain, nire bizitzaren beste alderdi nagusia familia da. 83 urteko ama eta 85eko osaba neurekin bizi ditut, eta horrek ere lotu egiten nau. Osaba bere kasa ondo moldatzen bada ere, duela zazpi urtetik, amari Alzheimerra agertu zitzaionetik, haren zaintzaz neu arduratzen naiz. Baketsua denari eskerrak!”

### Bizitza lasaia

Jakineko eginkizunekin betetzen du normalean eguna Susperregik. “Zortzietarako jaikitzen naiz, eta ordurako osabak egunkaria eta ogia ekarrita izaten ditu. Amari gosaria ematen ari naizela nahikoa arin arrastada bat ematen diot periodikoari. Gero, ama eguneko zentrorra eramaten dut, eta arratsaldean 17:15 aldera jasotzen dudanean beti saiatzen naiz berekin hiru bat ordu laurdeneko bueltatxo bat ematen”.

## Bizitzako bidaiak

||| Udan oporrak eduki ohi baditu ere, “meza emateko ordezkoko apaizen falta medio, jai-egunak hartzeko gero eta zailagoa” dutela adierazi du Susperregik. “Halere, udan senideek amaren ardura hartu eta egun batzuk hartzen ditut neuretzako. Galiziara, Bizkaira, Jacara... joan izan naiz”.

Halere, bizitzako “oporrik onenak” Mexikon pasatako hiru asteak direla dio. “Izeba Mexikora ezkondu zen, Periko Txikuri pilotariarekin. Duela 14 urte, hango lehengusu Pellok ezkondu nahi zuela, eta ezkonduko nituen esan zidan. Kristoren ilusioa egin zidan, eta ama eta biok han izan ginen.\*

Arnasbidea hartze aldera, lagunekin egoteko tartea ere bilatu ohi du. “Larunbat eta igande gauetan Mendizaletara afaltzera joaten gara, Joxe Gabilondo apaiza eta biok. Eta hileko hirugarren ostegunean koadrila batekin afaltzen dut, Zelai Luze Elkartean”.

### Goiz eresiaren zalea

Kirolerako “zaletasun puskat” izan duela dio, nahiz eta “kirolari ona ez izan”: “Futbol txapelketa antolatzen zuten Zubiolan eta hamar bat urtean parte hartu nuen. Garai hartan, palan ere jokatzeko nuen, astero Izarraitzen”. Eta, “mendizale amorratua ez” bada ere, Xoxote aldera igotzea “gustuko” duela dio. “Noizbehinka, terapia bezala erabili izan dut”.

Kirolaz gain, festarako afizio “pixkat” ere badu: “San Sebastian eta San Inazio eguneko txistularien kalejira oso gustuko dut”.\*

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA  
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com

**lentzeria  
mertzeria**  
jose artetxe, 16  
nabar

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK  
Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA  
Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA



## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

## FARMAZIAK (UZTAILA)

### EGUNEZ

1-7	2-3-6-15-18-23-24-25	4-9-10-12-14-21-26	5-11-13-16-17-19-22-28-29	8-20-27-30-31
Jacome (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 080258	943 811274	943 811949	943 815974	943 811350

### GAUEZ

1-2-3-11-12-13-14-15-16-17-27-28-29-30-31	25-26	4-9-10-22	5-6-7-19-20	8-21	18-23-24
Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 815974	943 811350	943 943850660	943 851235	943 851966	943 852989

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 27an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan, astegunak: 08:30-14:00 ||| Larunbata: itxita ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## BIDEGORRIAK.

Sarea osatzeko oraindik dezente falta bada ere, herrian gero eta ugariagoak dira bidegorri zatiak. Gurean bizikleta garraio bide gisa hain hedatua ez bada ere, bada ohitura hartzen ari den jendea.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

# BEGOÑA ILLARRAMENDI

Iruñea

“TXUPINAZOAN  
OILLO-IPURDIA  
JARTZEN ZAIDAN”

19 urterekin sanferminetara joan, Fermin ezagutu, eta maiteminduek Iruñean egin dute euren habia. 📌 Ainitze Agirrezabala

**N**olatan bizi haiz Iruñean?

Koadrilako batek hemen ikasten zinan eta orain nire senarra denaren lagun bat zinan mutil-laguna. Sanferminetan parrandara etorri gintunan batean bi koadrilak elkarrekin ibili, eta hala sortu hunan gure artekoa, 19 urterekin. Sei urtera ezkondu eta Iruñean jarri gintunan bizitzen, duela ia 14 urte.

**Erraz ohitu al hitzanean horra?**

Bai, hiri eroso da dun, ez dun oso handia. Hasierako urteetan lana Donostian egiten ninan, eta egun osoa kanpoan pasatzen ninan. Nazkatu eta lana utzi ninan. Harrezkeror lanbide ugari probatu ditinat, baina bani-nan gogoia nik ikasitako horretan zerbait bilatzeko. Orain hortz-klinika bateko laborategian egiten dinat lana, duela sei urtetatik.

**Bi herrien arteko bizimoduan zein dun ezberdintasunik handiena?**

Hor dena gertu duzue; hemen, berriz, egun guztian autoan ibiltzen naun. Hasieran, Burlatan bizi gintunan eta umeak Atarrabiako ikastolan hasi genitinan. Autobusa bazagon, baina nire lan-ordutegiarekin semeak ikastolara autoan eramaten ditinat.

**Euskara asko entzuten al dun?**

Ikastola inguruan bai, baina ogia erosterakotan, adibidez, ez. Inguru euskalduna bilatu dinagu guk, eta asko ibiltzen gaitun ikastolako gurasoekin. Nire lanean nik bakarrik egiten dinat euskaraz, eta kalean ez dun asko entzuten. Semeek –zortzi urte dituzte, hirukiak dira– nirekin euskaraz egiten ditin, baina euren artean erderaz egiteko joera ditin.

**Zer botatzen dun faltan Azpeititik?**

Familia, lagunak, herri-giroa... Horko bizimodua, kalera irten eta ezagunekin topo egitea, faltan botatzen dinat.

**Azpeitira etortzeko ohiturarik bai?**

Umeak txikiak zirela errazago joaten gintunan. Kozkortuta, futbola, pilota... ditizten, eta nekezago joaten gaitun. Halere, baditinat egun batzuk niretzako hartuta. Sansebastianetan urtero joaten naun danborra jotzera, eta Santiotan ere ez dinat hutsik egiten.

**Sanfermin zalea al haiz?**

Izugarri gustatzen zaizkidan. Txupinazoan hunkitu egiten naun, eta oילו-ipurdia jartzen zaidan. Guk parranda egiteko, gurasoak etorri izan ditun umeak zaintzera.✳



1. Julen, Unai eta Pello semeekin –8 urte dituzte eta hirukiak dira–, Sanferminetan. 2. Senar-emazteak semeekin. 3. Paz de Ziganda ikastolako abesbatzan abesten du Illarramendik.





# Arrazakeria

**P**arkera joan gara igande arratsalde. ahateak dabilta garai honetan urmael artifizialean, kumeak ere eginak dituzte eta zinemarik ederrena dute haurrek. ahatekumeak dozenaka ohi dira, amaren inguruan igeri, bizi-bizi. bertara heldu garenean, ordea, izutuak ikusi ditugu, bazter batean ahate ahatekume guztiak, urmaelak barruan zementuz egina daukan bigarren urmaelaren koskan lerro-lerro jarrita. uretan plisti-plasta zakur bat ahate ehizan nahi. nagusia, ur-ertzetik hoska. etortzeko eta etortzeko nagusiak, zakurrak kasurik ez, uretan sartuta, ahatean egin asmo du, edo jolasean ari da. nagusia ez da jolasean ari. gainera, jendea pilatu da bazterrean, denak putzura begira, nagusiaren hoskak eta ezinak ekarrita. nagusia ez da isiltzen, zakurrari etortzeko eta etortzeko. zakurrak kasurik batere ez. parkean ibiltariak zakurtu dira orduan. sartzeko bera eta ateratzeko zakurra uretatik. ahate gajoak. kume gizajoak. lotuta ibili behar dela zakurra kalean. parkean endemas. emakumea bere zakurrari hoska, jendea hasi zaio emakumeari hoska, zakurra uretatik irteten ez dela ikusita. bakarrik dago emakumea, gero eta estuago, honen eta haren presioa ezin eramanda.

–posible al da? –gure ondoan andreko batek–, zakurra uretan sartu dela, ahateak izutu dituela, eta nola erasotzen dion jendeak andre gajoari? hauxe izan izango da garai bateko lintxamendua. utzi ezazue bakean emakume gajoa! –esan du.

## Legea lagun

baina batzuk ez daude amore emateko prest. legea dute lagun. segurtasun indarren indarrez datoz. “zakurra lotuta ibili behar du”. (lehenengoa da, bada, zakurra libre eramaten). “sartzea dauka putzura eta zakurra uretatik atera”. “deitu poliziarri”. andreak, ordea, inor baino lehenago egin dio telefono-deia bere gizona koari. etorri ere egin da. emakumea, ordurako, uretan sartuta dago, zakurraren



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Gu elkarri begira eta lotsatuta. Nola hasi esaten ez garela espainolak, gu ez insultatzeko, faborez.

bila. eztabaida hasi da andrearen papitoren eta buila handienak egin dizkion morroiaren artean. berotu dira. baina ez dute elkar jotzeko animorik. batak besteari kristorenak eta bi esan dizkiote. azkenean, arrazoi biribila burutsua zentzuz betetakoa entzun du papitok entzun dugu guztioi: “hi eta hi bezalakoak espainiatik kanpora!”. desarrazoi arraza hori ez zaigu gustatu. “horrek ez dik zakurrarekin ikustekorik. zer ari haiz?”. papitok gogo onez hartu du gure defentsa. “hauek bai, espainol jatorrak, eta ez hi. honek erakusten du espainol denak ez direla hi bezalakoak, mamarro hori”. gu elkarri begira eta lotsatuta. nola hasi esaten ez garela espainolak, gu ez insultatzeko, faborez. nahikoa dugula. igande arratsaldean paseoa, besterik ez genuela nahi. hego-amerikarrak izan, errumaniarrak izan... buila egin dien pailazoa bera ere ez dela gasteizen sortua, gure ondasun guztia apustu.✘



# Antonio Rafaniello

## HORTZ KLINIKA



# Zure betiko dentistie

• *Teknologiye* • *Kalitatie* • *Konfiantzie*

Enparan kalea, 8 - 1. • Telef. 943 81 67 36 • AZPEITIA

*Eman zure negozioaren berri Azpeitiko Gidan!*


# azpeitiko



HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA








Santi Lazkano Kiroiak

2011ko uda

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



## NOTEBOOKa

249€ (bez barne)



La Salbe 39 behea, 20730 Azpeitia | Tel.: 943 150101

**u** kabi Informatika